LOTAZILLA
1
BARIKUBA

BILBAO 1933

EUZKADI

ARPIDE-SANEURRIJA
Bilbao'kua ... ... 6,00 irko. iru'ilez
Bilbao'atazkua 7,50 „ „
Idazki-Itunmena 62,00 „ urtez
Atzarrijetakuak 100,00 „ „

BELDAYEN ITUNDUBA

XXI urtia || Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17, 1.° || 234 Idazkutxa | 17.810 Urrutizkiña || 6.546 zenbakija

Egunekua

Euzkel-ixenak

Emen imiñiko dogun euzkel-ixen au, Madrid'tik bidaldu dauskubena da, ta bertatik bidaldu dauskuben lez imiñiko dogu:

"Madrid'en ixan dabe euren alaba lenayua Zabala'taŕ Aingeru ta Laŕunbide'taŕ Miren Nekane, senaŕ-emastiak: ugutzau leban Aŕiandiaga'taŕ Imanol, aidiak, eta aña-amabitxi ixan leuzan Zabala'taŕ Imanol, osabea, ta Toŕe'taŕ Miren Nekane, amamea; ume jayopaŕijari ixenak imiñi dautsez "Maitena Begoña". Zorijonak."

"Bizkai'ko jaunak"

Oŕban baltz eta andi bat dauka kondaira edo edestijan atzoko egunak, egun gomutagaŕi ta andija, ixendautako gauza bijegatik, ixan-aŕen.

¿Zegatik? Beratantxe lenengo Jauna autu zalako, ta Bizkaya bere Jaunak eurok bere zori-gaizto-leiz onetara ekaŕi dabelako.

Aizkidetu ziran Jaunak España'kin eta España'kin, eta Bizkaya'k Jauna euki ebalako, onek nozonoz España'ren burestun edo koroia jarauntsi eban, eta ordutik yatoŕkuz gauŕ gure bekokijok berantzatuten dabezan estuntza edo katiok.

¿Zetarako Bizkaya'k Jaunik autu ete-eban?"

卐 卐 卐

Orain emen irakuŕi dozubezan leŕuok, "Egutegi Bizkaiaŕa„'ri gauŕ kendu dautsagun oŕitxubak dakaŕena da.

Oŕitxu onek, Sabin'ak idatzi ebazan gustijak lez, Bizkai'ko edestijatzaz diñardusku. Eta edesti-bidetik begiratuta, atzoko egunari, oŕban baltza ta aundija ikusten dautsa.

Oŕban ori, baŕiz, Sabin'ak, Bizkaya Jauŕtuteko lenengo Jauna autestian ikusten dau. Jauna, agiri danez, Bizkaya'ren jauŕkarija barik, Bizkaya'ren ondatzalia ixan zalako.

Eta zoritxaŕori dala-ta, Sabin'ak, oŕitxu onetako irakuŕgaya itaune onixegaz amaitzen dau: "¿Zetarako Bizkaya'k Jaunik autu ete-eban?"

卐 卐 卐

Itaune au, Bizkaya'k eta Euzkadi osuak be, saŕitan egin leiken itaunian da.

Oraingo aldijotan Bizkai'rako Jaunik-eta, emen, eztoguz autesten. Baña geuk euzkotaŕok autesten eztoguzan-aŕen, be, Bizkaya ta Euzkadi jauŕtu gurako Jaun asko ixaten doguz, baña biaŕ dan lez jauŕtuteko askorik ez.

Eŕi ta abeŕi-jauŕkarijakin jazoten dan au, eŕi ikasijen aŕtian iñoz be jazo biaŕ elitzakena da: eŕijak bera jauŕtuteko, otseinduteko aututen daben jauŕkarija, edo garbijago esanda eŕi-otseña, eŕi osuaren jaube eginda gura dauna egiten ibiltia, zentzundun eŕi ikasi batek laketu ezin leikena da.

Gixaŕtiaren lotsagaŕirako, baña, abeŕirik geyenetan jazoten dana, orixe da: geure autaŕkijakaz geu ondatuko gaŭbezan gixonak autestu, ta geure agindari guren imindia.

卐 卐 卐

Etxe batera otsein duana, ugazabeak esaten dautsana egiteko juaten da. Eta egin be alantxe egin biaŕ ixaten dau, edo bestela, baŕuratuteko zabaldu yakan atia, kanporatuteko zabalduten yako, ta aiko -maikoetan ibili barik etxetik at bidaldu be.

Etxe-jabiak bere kautan oldoztu oi-dauna, auxe ixan darua: "neure etxian alikatuten diran otseñak, neure etxia aldeztu ta obetuteko ixan biaŕ dira, edo beste leku batera juateko bidian jaŕi biaŕ dira".

卐 卐 卐

Onetara oldoztu, ta oldoztuten dauna egiñenakaz erakusten daun etxe-jabia, etxe -jabe arduratsuba da.

Euzkotaŕok oŕen arduratsubak beti ixan ba'gintzazan, eztogu uste, gauŕ, etxe-baŕuratuta daukaguzan beste jaun edo otsein etxe-kalte ixango gebazanik.

Baña gu, zoritxaŕez, etxera begira baño atzeŕira begira egoten zaliaguak ixan gara. Etxeko anayai baño, etxetik atetikuai lagun-egiteko ariñago geŕtuten garanak.

Eta atzeŕi-zalekeri oneik dira geure etxia ondatu dauskubenak, geure seme-alabaen ogipidia, atzeŕikuai emon dautsenak.

卐 卐 卐

Aspaldijon, baña, asko ikasi dogula esan leike, ta asko zentzuneratu garala be. Markes, konde ta onelako aundiki ta bakaldun-usañeko abeŕi-ondatzalei musin egiten asita gagoz, ba, ta aundiki-lañoz lausoturiko begijakaz barik, azkatasun-eguzkijagaz argituriko begi argijakaz geure abeŕi maŭiari begiratuten.

Autaŕkijak erosteko bakaŕik txindija erakusten dauskuben aberats okitubak, euzotaŕon zintzotasuna euren begi-auŕe-ziaŕ igaruaz, ezestu egiten doguz, eta geure autaŕkijak, geure agindubа zuzen beteko daben abeŕi-otsein zintzuari emon.

Txindijaz autaŕkija erosten dabena, eŕijak ezestuten daben abeŕi-erosle etoya da. Eta txindijatik autaŕkija saltzen dabena be, abeŕi-saltzalia da, ta abeŕi-etoya.

Beraz bijak bardiñak, ¡bijak ezeskaŕijak! "¿Zetarako Bizkaya'k Jaunik autu ete-eban?"

URIBITAŔTE'TAŔ IBON.

GAZTELERRI'TIK

LOMA'EN.—Palencia'ko eŕitxu oni bete -betian dagokijo Lomas (Tontoŕeta) ixena. Txadona (elexea) dago goren; eta kanpantoŕetik edozenbat eŕi agiri dira inguruko luŕalde zabalian.

Eŕi ona dogu, Carrion-ondoko beste eŕijak letz; eta gogotsu erdu yakuz goi-egijak entzuten. Bi baño ez ei dira autoŕtu -barik lotu.

Jaunaŕtu dagikienak beŕeun diralarik, belguntza-egunetan seireun jaunaŕtza ixan doguz.

Belguntza-amaya, baŕiz, ezin itunagua: gu eŕitik uŕten baño ordu bi lenago beŕtoko aberatsenaren etxia subak aŕtu dau, bai?, ta eŕi osuak alegiñak egiñaŕen, ordu -bigaŕenerako geyena eŕeta dago. Bostanei (5.000) ogeŕlekoren kaltia-edo.

VILLAVERDE'N.— Igaz ikeŕtu leudan baseŕi au Lomas'tik uŕun-barik dago-ta, ango euzkeldun adizkidiei aguŕ-egiten nua. Arein poza!

Tamala, benetan, uŕengo igandia auteskunde eguna ixatia! Mikele anderea bere eŕira, Oyaŕtzun'era, juteko da autaŕkija emoten; bestiak, baŕiz, beŕtoko Villanueva eŕira jun biaŕ. Ostantzian, igaz lez, mezea emon eta euzkeraz txonitz-egiteko gertu nago.

VILLAUMBRALES'EN. — Lomas'tik Villaumbrales eŕira egin dogu. Eŕi aunditxuba da, ta Palencia'tik amaŕ aneuŕkin edo kilometro uŕun dago. Palencia uri-ondoko eŕi geyenak letz, elexarako otz-samaŕa da.

Ekin eta ekin, ume ta emakumezko geyenak eta gixonezko erdijak-edo autoŕtu ta jaunartzia jadetsi dogu. Txaunburubak uste leban baño geyagok beintzat. Emendik atzera "Ibayagoŕ„'era egin biaŕ dogu.

AUTESKUNDIAK.—Bizkai'ko ta Gipuzkoa'ko gurenda aundija emengo izpaŕingijetan ikusi dodanian, nire poza! Egun batzu geruago abeŕikuak eldu yataz, ta pozaren pozez irakuŕi dodaz. ¡Gora Jel! Eskeŕik asko "Agarel" adizkidiari-ta.

Palencia eŕkijan iru eskumataŕ ta sosolisto bat urten dira aldun. Valladolid'en, be, eskumataŕak garale; "Ibayagoŕ„'en bertan, baŕiz, sosolistuak.

Emengo eskumataŕ askotxu, baña, elexarako otzak dozuz, irakuŕle. Villaumbrales'en berton autaŕki geyen-geyenak eskumataŕentzat ixan dirala esan dauskube. Eurotariko erdijak, be, ez ei-dira, baŕiz, igandetan mezatara juaten! Olakuak dozuz España'ko eskumataŕ asko: uskuŕtza-barik diruba jabotiaŕen emon dabe autaŕkija sosolistuen auŕka. NABAŔIZTAŔA.

Aranburu'tar R.
AZAL ETA TXIZ-BIDIAK
Fueros, 5. 3°. DONOSTIA

MARTIKORENA
Begiyetako gaixoen sendagillea
Garibay, 13 bis, 2.° - DONOSTIA

ARRIETA-BITXIZALEA
Legazpi, 10. - DONOSTIA. - Urrutizkiña, 13.777.

EUZKO
JEL - ASTEROKO IZPAŔINGIJA
Larunbatetan agiri ixaten da
Euzkelduna: Abertzalia ba'zara, erosi ta irakurri biar dozu asteroko au.

EIZARA'KO SUIZKILLU (ESCOPETA) OLEA
L. LEGARISTA Y COMPAÑIA
SORALUZE (Placencia de las Armas). — GIPUZKOA

JEAN BARBIER
Ichtorio-Michterio
(Ipuin-Mipuñak)

(Lapurdieraz)

6.—EŔEGEA, TUPINA ETA CHICHTUA

Behin batez, omen zen gizon bat debruz egina, eta nola Eŕegerekin aŕas adichkide baitzen, noiz nahi ethortzen zitzaion eŕege ikustera.

Egun batez, eŕege ethoŕi behaŕa eta, eŕaiten dio bere andreari: "Egun, behar giniken balentria zerbait egin, eŕege ethoŕi orduko." Andreak: —Baietz, segurki! harek ere nahi zuela. Eta biak emaiten dire gogoetatzen; eta hola ari direlarik, ikusten dute eŕege heldu bere andrearekin, eta deusen egiteko astirik ez eta, ez jakin zer egin, gure gizonari, bet betan gogoratzen zaio joko hau: Tupina suan baitzuten, irakitan, "gal, gal, gal" ari, hartzen du bere tupina, sukaldearen erdi erdian emaiten, eta sua berehala hiltzen.

Sartzen dire gure eŕege eta eŕegina.

"Agur" eta "Bai zuri ere", eta berehala, ohartzen da eŕege tupinari, eta galdegiten du: zertako zen tupina hura sukaldearen erdian irakitzen ari? Eta bere adichkide gizonak eŕaiten dio: beren gisako tupina dutela hura, batere surik gabe egiten dutela eltzekaria, egun guziez, sukaldearen erdi erdian eman eta. Eŕegek ez sinhetsi nahi eta, gure gizonak hurbilarazten du tupinaren ondora, estalkia khentzen, eta eŕegek ikusi zuen tupina egiazki irakitzen ari zela.

Orduan sinhetsi zuen, eta galdatzen dio: othoi sal zezon tupina. Gure gizonak, ahal bezen poliki eŕaiten dio: nahiago duela ez saldu, hura dutela beren guzi guzia, eta deusik ez litazkela hura gabe. Eta orduan eŕegek: ez zutela deusen eskasik izanen, emanen ziotela nahi zuten bezembat diru, eta othoi saltzeko. Eta, azkenean, gure gizonak, gogoaren kontra bezela, saltzen dio tupina eŕegeri.

Gure eŕege gan zen eŕeginarekin, bere tupina eskuan, eta etchera heldu eta berehala, badoa bere sehien gana, eta emaiten diote tupina eŕanez: eman zezaten tupina hura, behar zituen guzian barnean, sukaldearen erdi-erdian, eta utz zezaten bere gisa, eltzekaria bera eginen zela, batere surik gabe.

Sehiek: baietz segurki, onŕsa gogotik!

Biharamunean, sehiek emaiten dute tupina, bere onkailu guziekin, sukaldearen erdi-erdian, eta gan ziren, bakotcha bere lanetara.

Eguerdi aintzintchean, behatzen diote tupinari eta ikusten dute, hek utzi bezal bezala dela tupina, barnean harat hunatik gabe. Haŕituak zagozin elgaŕi behaka, noiz eta ere heldu baitzaiote eŕege, bere tupinaren beŕien galdetzera...

Nor haŕitu eta eŕege haŕitu, ikustearekin bere adichkide gizonak enganatu zuela.

卐 卐 卐

Bere aldetik, gure gizona ere ezen batere deskantsuan, baitzakien zer zuen egina.

Bere andrearekin ari zen; chahu zirela oraikoan, eŕege ethoŕiko zitzaiotela, eta borthizki gaztigatuak izanen zirela. Bet-betan, jaunak eŕaiten dio andreari:

—No! behazan! bazakinat zer eginen dugun; bihar, eŕege ethortzeko aintzinean, emanen dun, hik, chahako bat arno bulhaŕetan, eta eŕege erasiaka hastearekin, nik eŕanen dinat hik enganatu naunala, hik eŕanik baizik ez dutela deus egin... eta orduan, hasaŕetuko naun, eta hiri jazartzeko, alegia eta bulhaŕetan, chahako hortan sartuko dainat kanieta, eta, hi, eroriko haiz, hila bahintz bezala. Eta gero, eŕegeri sinhetsaraziko zionat, "chichtu hunekin" phitzaraziko hautala, eta hik askiko dun, lehen chichtuan, zango bat mugitzea, bigaŕenean bertzea, eta hirugaŕenean chutituko haiz." —"Ba, ba, hola eginen diat, eta agian ez gaitik eŕegek gastigatuko!"

Hek eŕan bezala, biharamunean, eŕege heldu zaiote, hasaŕe handian. Sartzen da, eta kuchean, hasten zaio mokoka gizon gaichoari: ba eta tupina hartan enganatu duela, eta hola trufatzen den eŕege batez..? Eta ari zitzaion eŕan eta eŕan...

(Bizkayeraz)

6.—EŔEGIA, TOPINA ETA TXISTUA

Bein baten ba-ei-zan gizon bat deabru gayez egina (deabrua baizen okeŕa), eta Eŕegegaz gustiz adizkide zanez, eŕegea noiz gura etoŕten yakon ikusten.

Egun baten, eŕegea etoŕi beaŕ, eta ba -diñotso bere andreari: "Gauŕ, balentekerien bat egin beaŕ gayeunkena, eŕege etoŕi yaiteneko". Andreak: —Bayetz, auŕki; berak bere ba-ebala gura. Eta biak jaŕten dira gogoratuten, eta olan diarduelarik, ikusten dabe eŕege bere emazteagaz etoŕi datoŕela, eta ezer egiteko astirik ez eta zer egin jakin ezik, gure gizonari bat-batean otuten yako trikimala au: Topina eben sutan, "gal, gal, gal" irakiten, bai, eta aŕtuten dau topina, iminten dau eskaratz erdi-erdian eta amataten dau sua beingoan.

Saŕtuten dira gure eŕege eta eŕegina.

"Aguŕ" eta "Bai zuri bere", eta beingoan, oaŕtuten dau eŕegek topina, eta itaunduten dau: zetarako egoan a topina eskaratz erdian irakiten? Eta aren adizkide gizonak esaten dautso: euren eratakoa dabela a topina, eta bapere surik barik egiten dabela lapikoŕoa, egunaro, eskaratz erdian iminda. Eŕegek ez sinistu gura eta, gure gizonak topin ondora uŕeratu-azoez, kenduten dautso estalkia, eta eŕegek, topina benetan irakiten egoala ikusi eban.

Orduan sinistu egin eban, eta eskatuten dautso: aŕen saldu egiola topina. Gure gizonak, al eukean baizen polito ba-diñotso: nayago dauala ez saldu, axe dabela euren gusti-gustia, eta ain barik ez litzakezela ezer izango. Eta orduan eŕegek: ez ebela ezeren uŕirik izango, zenbat gura diru emon go eutsela eta, aŕen, salduteko. Eta, azkenean, gure gizonak, gogoaren kontra legez, salduten dautso topina eŕegeri.

Joan zan gure eŕege eŕeginagaz, bere topina eskuan ebala, eta etxera eldu eta bereala, ba-doa bere otseñakana eta emoten dautse topina, esanez: imini egiela a topina, beaŕ zituzan gustiakaz baŕuan, eskaratz erdi-erdian, eta itzi egiela berekitean, lapikokoa berez egingo zala-ta, surik bapere barik.

Otseñak: bayetz, auŕki, ondo gogoz!

Biaramonean, otseñak iminten dabe topina, bere ongaŕi gustiakaz, eskaratz erdi -erdian, eta joan ziran bakotxa bere lanean.

Eguerdi auŕetxoan, begiratuten dautse topinari eta ikusten dabe eurak itzi eben legetxe dagola topina, baŕuan bapere irakin barik. Aŕituta egozan alkaŕeri begira, eta arako baten ba-yatoŕke eŕege, bere topinaren baŕiak itaundutera...

Iñor aŕitu ba'zan, eŕege aŕitu zan, bere adizkide gizonak atzipetu egin ebala ikusteaz.

卐 卐 卐

Gure gizona, bere baŕuan, ez egoan bapere lasai, zer egin eban ba-ekialako.

Bere andreagaz eragoyon: galduak zirala oraingoan, eŕege etoŕiko ekioela eta gogoŕ zigoŕtuak izango zirala. Bat-batean, ba-diñotso senaŕak emaztearı:

—Andrea, beiratuina! Ba-yakinat zer egingo yonagun; biaŕ, eŕege etoŕi auŕean, iminiko dona ik ardao zato bat bulaŕean, eta eŕege agiraka astean, ik atzipetu nonala esango yeutsanat nik, ik esanikoa baño ez yonadala egin besterik; eta orduan, asaŕatu egingo nona, eta iri atomauteko, bulaŕean egiten daunatalakoan legez, zato oŕetan saŕtuko daunat ganueta, eta i, jausi egingo az, ilik bai'engonan. Eta gero, sinistu eragingo yeutsanat eŕegeri "onegaz txistuaz" biztuko auna-dala, eta ik naikoa izango dona, lenengo txistuan, anka bateri eragitea, bigaŕenean besteari, eta irugaŕenean zutundu egingo az." —"Bai, bai, olan egingo yoat, eta ez al gozak eŕegek zigoŕtauko!"

Eurak esandakoanez, biaramonean, ageŕtuten yake eŕege, asaŕe bizitan. Saŕtuten da, eta beingoan, asten yako eŕietan gizon gaisoari: bai, eta topin aregaz atzipetu egin dauala, eta ea olan burla egiten yakonez eŕege bateri...? Eta esan eta esan eragoyon...

Bizkayeratzalea,
GAŔO'TAŔ BERNARTA M.

ATZALGAŔIAK.—"Tupin" (L), "topin" (B), marmita; "sehi" (L), "otsein" (B), criado; "onkailu" (L), "ongaŕi" (B), condimento; "zigoŕtau" (B), castigar.

ER..ENDERI

GURENDA GURENDA!—Poztu zaite Eŕenderi abeŕtzalea, zeugan gendun itxaropena etzan utza. Eŕi abeŕtzalea ziñala bagenakigun, gogoŕ erantzungo zendula ere bai, bañan oŕenbesteraño oraindik ez. Igandez azaldu da Eŕenderi ziaro abeŕtzale dala.

卐 卐 卐

Pozaren pozez biyotzak lertu nayean dauzkagu eŕenderiaŕ abeŕtzaleok. ¡Samindurik naiko egon bai dira azpaldian! Bañan gauŕ ez, gauŕ alaitsu daude, gurenda aundija izan baita igandekoa.

卐 卐 卐

Batzu batzuk begiratu zoŕotzak egin oi dizkigute, gixaxoak ,ez oŕela jaŕaitu. Ez dezue ezer auŕeratuko eta oroitu, zuek eta gu, katolikuak gerala gauz gustien gañetik eta uŕen euzko-endaren (Razaren) semeak.

Jauntxo zital, aŕo batzugatik, ez degu asaŕetuta alkaŕ goŕotatuaz bizi beaŕ. Gu oŕela ikusteakin paŕa lasai egiten du atseŕitŕ zinisgabeak eta badakizute ezakun zaŕa "Divide y vencerás". Eta au gertatu baño len ezango diogu atzeŕitaŕ eta jauntxoei: Orain aŕte egin-dezute paŕa, auŕerantz ez. Eta oŕela bai izango dal azorionekua gure ama Euzkadi. Goŕotorik ez maitasuna. Eta egiz, gure bijotzak maitasunez estalirik dauden eskeroz barkatu ta leku eman beaŕ etsayei ere. Leku bai bijotz-txokoan, anayak izaki eta gure baŕuan goŕoto-pozoya itxasten ez. Maitasuna bai, benetako maitasuna baita abeŕtzaletasuna. Gora biotzak anayak guria dek eta.

卐 卐 卐

BATZOKI'KO KONZERJETZA.—Batzoki beŕiko zaindari edo "kontzerje" izan nai duen gustiai adierazten zayo, gaurtik ilan 30 uŕte, artu lezakela Batzoki'ko idazkaritzatik, araudi edo "reglamentuak".

ITZ BI.—Bukatzeko eŕenderiaŕ abeŕtzale oroi eskaera bat. Ez degu lo geratu beaŕ baizik iñoiz ez bezela ekin beaŕ diogu lanari eta bildu, bildu danok Batzoki'ra gurenda aundietako Batzoki zaŕ ontan azaldu deyogun berari azken egun abetan gure maitasuna. ¡Gora Eŕenderi! ¡Gora Euzkadi!

ANDONI.

OROZKO

BATZAŔ-DEYA.— Datoŕen igandean, lotazila'ko 3'an. batzaŕera deŕuten yake emakume gustijai, Batzoki'ko tokira aŕatsaldeko 4'retan.

Zuzendarija.

Errijetati

MUXIKA

Muxika'ko Uri-Buru-Batzaŕa'ren aginduz, lotazila 3'an., goxeko 9'tan. Eŕi onetako Ertxadonan (paŕokijan) ixango da jaupa abestu bat, Arana-Goiri'taŕ Sabin eta aŕezkero il dako abeŕtzalien gogo-aldez; abeslarijak bertoko Jeltzale gastiak ixango dira, Oxanguren'daŕ Kepa jauna, jaupari ta abeŕtzale zintzua txauneskindari dalarik.

Muxika'ko Jeltzale eta emakume gustioi dei egiten yatzube ba, igandian al dozuen gustijok eleizkixun oŕetara eldu zaŕeziela, lengo gurendeak gaitik eskaŕak emon eta gurenda baŕijak ezkatuaz otoi egiteko. Otoi eta lan ¡auŕera beti!

Uri-Buru-Batzaŕa.

MURUETA

AUTESKUNDIAK.—Eŕi onetako abeŕtzaliak be, azkenengo igandian, eŕkal-zozolisto-karla-albontsataŕai gudea irabazijaz, edeŕto porteu ziran. Lau gudari puŕukatuben auŕka gudari bat bakaŕik ixan zan, eta bakaŕik be beste laurak baño tantu geyago egin ebazan.

Gurenda au dala-ta eŕi onetako abeŕtzale zintzuak, apari-meriendatxu bat egiteko asmua dabe, apari-azkari-iskitxu onegaz euren gurenda aundija ospatuteko

Apari oŕetara eldu bat egin gura daunik ba-dau, "Santi-Gane„'ri esatia dautsa gerora begira egon barik, berida ba-dautsa, oba.

Atauteskunde egunian atrapau ebazan zolisto bi txindoŕ lumaz ondo jantziŕ ziran aŕen, Aŕonategi'taŕ Kepa'k egin eban auteskundietan. Jaŕai Jel-ikuŕiña goi-gora jasota izatea.

NASKALDIJA. —Auteskundetan euren autaŕkijak emoten etoŕiko aguŕtu genduzan Madariaga'taŕ Eŕiñiga'taŕ Pandalon, Araluzea'taŕ Ibarra -neuŕlari trebia, ta Bingen eta Marseme zintzuak.

AITZ-GAIN.

LARRABEZUA

JAUPEA. — Datoŕen igandean, zortzi ta erdijetan, eŕi onetako eŕiko Sabin Irakaslia zanaren gogo-aŕen parauko abeŕtzale ildakuen gogoko jaupa bat ixango da.

BATZAŔA.—Jaupa-ostian, Batzaŕa egingo da.

Batzaŕ au, lotazilan 10'garenan egingo dan Batzaŕera bidaldutako autesteko ixango da.

Batzaŕ au gaŕantzitsuba daneŕdanik bazkiderik geyen batuten alegindukо dala uste dogu.

.. *Uri-Buru-Batzaŕa.*

Deunen bixitza

Natale Deuna

Natale deuna Adiran deuna ziñopearen alarguna zan. Bere bixitzeatzaz oraintxe jaŕiko doguzan izpaŕak baño eztakiguz.

Maximen agimendunaren aldijak ziran. Nikomedia urira urtzixunen guŕtzea auŕeratuteko asmoz juan zan. Bada ezpadan batobatek urtzixunai buruskaña opalduten ezpa'leutsen erail egingo leban. Kistaŕak asmo oŕeik entzun lebezala mendijetara ta lekaruetara juan ziran batzuk bilduŕaŕen eta beste batzuk eurai jaŕatutiaŕen.

Mendira juan ziranetatik ogetairu aŕtu ta espetxera eruan lebezan. Euretatik iñok, be, eleban urtzixunai buruskañik egin gura. Oŕi zala-ta zigoŕtau egin lebezan eta atzera espetxian saŕtu.

Adiran deunak oŕeik gauza gustijok ikusiŕa Kisto jaunagan ziñesten lebela esan leban, zingia zan ba. Agimendunak a be espetxian saŕtutia agindu leban.

Natale deuna lendik, be kistaŕa zan eta poz-pozik espetxera juan zan bere senaŕa aguŕtuten. Senaŕa ikeŕtuta gero beste ogetairu espetxeratubak ikeŕtu ta poztuten juan zan.

Bere epai orduba jakin lebala Adiran deuna-atezañai txindija emonda-espetxetik urten zan bere emastiaz egoteko il-auŕetik. Etxe ondora uŕbildu zala, bere emastiak ikusi leban eta Kisto'ren ziñesmena ezetsiŕa azke geldiŕu zala uste ixan leban. Oŕegatik didaŕ baten asi zan bere senaŕaren auŕka Kisto'ren aizkidetasuna galdu lebalakuan. Adiran deunak didaŕ eta zarata areik entzungi berak uste lebanagatik eletoŕala ageŕtu ixan leutsan. Orduban asko poztu zan Natale deuna: Kisto'gaŕen pozik jasateko neke ta atsekabe gustijak liñotsan.

Gustiz adoretuta juan zan Adiran bere espetxera. Natale deuna baŕiz beste ogetairubak ikeŕtuten juan zan. Zaurijak aŕez beteta leukezan. Eurekin egon zan Natale deuna saspi egunetan.

Ogetairubak bere auŕera juateko esan leban agimendunak: salatarijak ezin zirala etoŕi ageŕtu leban zauri gustijak ustelduta leukezalako. Orduban Adiran deuna etoŕteko agindu leban enboŕ andi bategaz lepuan. Agimendunaren itauna gustijai oso -oso erantzuten leban. Alako adoria ikusirik sendo aztinduteko agindu leban agimendunak. Gero sabelean zigoŕtauteko. Zigoŕen zigoŕez sabela luŕera jausi yakon. Oŕez ostera espetxera eruateko agindu leban. Pozik leguan bere emastia.

Agimendunak emakumerik espetxera ez saŕtuteko agindu leban. Baña Natale'k ulia ebagi leban eta len letz espetxera juaten zan. Atzenez deunen gorputzak biŕindu egin lebezan. Gorputzak Konstantinopoli'ra eruan lebazan Eusebi'k.

Andiki batek-agimenduna biŕaŕteko zala -Natale'ri eskuba eskatu leutsan: gauzea obeto oldoztuteko iru ilabete eskatu leutsezan. Biŕaŕtian Goiko-Jauna'ri otoi ta otoi-leguan olakorik ez ikusteko. Jaunak Konstantinopoli'ra juateko agindu leutsan. Alantxe egin leban. Andikijak ori jakin lebela agimendunari gudarijak eskatu leutsazan bere atzian juateko. Luŕera eldu zala Natale deunen gorpuzkiñana juan zan. Ilobi ganian lo-geldiŕu zan eta bertan il be.

AGAREL.

"LA MILAGROSA"
Arrautz - salokija
Arrautza onenak, merkiak
Bakotxari etxera eruango yakoz'
HENAO, 7'GN. 15.605, URRUTIZKIÑA

Léase EUZKADI

Euzkotar umien al

"Bide bakaŕean, ... pean, pitin baten ... tzan, eta nere ... nuan, bere beso artan ... etxe estutzen ... etxe danetan oiek ... kak."—Tagore.

Gure umiai erakusteko asmoz ... datozen irakasleak ume bat ... gutzen dute, ez ikusi eta ez ... ume bat; eŕderaz esateko un niño ... Madrid'en Eŕi-Ikaskuntza Ministerio sortua.

Ume onerixe erakusten, eta ume ... asiera ona ematen erakusten ... ikastoletan, eta dan danetan ... diñak ematen dituzte.

¡Ez bai dute ulertzen Madriden ... oyetatik ez ezer erakutsi ta ez ... leikianik!

Beste gauza bat. Gañera, irakasleak ... etoŕi baño len Segovia'n edo Valladolid'en edo irakasle izana ba'da, ikusita ... umiak ondo samaŕ baldintza ... sartzen dirala, ta Euzkadira ... nian berdin berdin lana egiten ...

Baña euzkotaŕ umiak ezin ... dintza ayetan sartu, gauza ... etortzen zaizkiote, beste batzuk ... saiegi, luziegi, laburegi ta ... bezela lana egin aŕen beti ... nak ikusten ez dituanian ... erteera au izaten da. "Bizkaino ...

Irakasle au umietara ezin ... umiak beŕiz irakasliengana ... ara emen gure abeŕiko ikastolaŕi ... zertarako diran: Umien buru ... du, euzko gogua il, eta biaŕ dan ... azierarik eta ez jakintzarik ...

卐 卐 卐

Gure umetxoakin, euzkotaŕ umiak ... ikastoletan egiten dan gauza ... esan biaŕ det.

Gauza oŕeŕa, gauza ituna, ... poraköa, ondoren txaŕak ... Euzkadi galdu duana, eta beste ... artzen ez ba'de gu, betiko ... saŕtuko duana.

Gaiztakeri ori auxe da. Euzkotaŕak diraŋ ez azaldu ... abendaren edesti ta uritasuna ...

Italian'n bai da, urkamendian ... notiñen seme alabai aziera ... ikastola bat.

Eta beratzaz gogoratzen nai ... oldoztu oi det auxe: "Ikastola ... biltzan ume eŕukaŕi oyeri ¿estaldu ... kutatu ote diote iñoiz euren ... guri, euzkotaŕoi eskutatu ta ... bezela?

Onetan, gaurko ikastolak okeŕ ...

Anarkistak ez dute naj umiai ... edesti edo historiaŕik erakusteŕik.

Dana apurtu nai dute, dana ... biŕindu, dana aukez gora bota, ... gauzen aztarnaŕik ere gabe ... ta moral beŕia sortzeko.

"Gure asmoak euŕera eramateko ... aundi bi ditugu—esaten dute ... eta etzai abek biak gizonak ... mazki, abenda ta Abeŕia dira.

Bi gauza oyen aurka egiteko, ... abeŕiaren maitetasuna gizonen ... kentzeko gauzaŕik onena auxe da: ... eŕien edeztirik umiai ez erakustia. ... auŕetiokoen beŕiak umien buru ... kentzia, gaurko gizona bere asaba ... lotzen duan lokaŕia ebakitzia."

Euren edestirik jakingo ez ... danak aita ta ama gabeko sasi-... zela izango litzakez, eta sasi-... txaŕekoak bere amaren alde zertan ez duan bezela, edezti gabeko eŕiak ... abendaren alde zertan zertan egiten ... zein dan ez dakite-ta.

AŔITOKIEN.

R. de Goikoetxea
Especialidad en muebles estilo ... desde lo más elegante al más ...
No dejar de consultar con esta Casa ...
Arte religioso, altares, capillas, ...
Calle de los Herrán, 7, VITORIA